

KANBOKO HERRIKO ETXEA

– Pirinio Atlantikoen Departamendua

ERABAKIEN BILDUMA

2019KO APIRILAREN 1EKO HERRI BILTZARRAREN BILKURA

Bi mila eta hemeretziko apirilaren lehenean, kide zaharrena den SAINT JEAN Henri jaunaren lehendakaritza pean behar bezala deituriko Herri Biltzarra bildu da. Saioa 19:00etan hasi da.

Hor ziren: Christian Devèze Jn, Eliane Noblia And, Frédéric Bardin Jn, Pascale Lespade And, Didier Irastorza Jn, Eliane Aizpuru And, Henri Saint Jean Jn, Anne-Marie Pontacq And, auzapezordeak, Vincent Bru Jn, Vincent Goytino Jn, Christiane Hargain-Despéries And, Patrice Dor Jn, Yolande Huguenard And, Jean-Jacques Lassus Jn, Argitxu Hirigoyen And, Jean-Noël Magis Jn, Corinne Othateguy And, Peio Etcheleku Jn, Roger Barbier Jn, Carmen Gonzalez And, Pascal Bourguet Jn, Véronique Larronde And, Bernadette Remeau And, Argitxu Hiriart-Urruty And, Nathalie Aïçaguerre And, Amaia Beyrie And, herriko kontseilariak.

Huts egitea jakanarazia zutena: Maryannick Hirigoyen And, Camille Jenvrin Jn, Philippe Bacardatz Jn, Herriko Kontseilariak.

Prokurazioa : Maryannick Hirigoyen andereak Eliane Noblia-ri, Camille Jenvrin-ek Didier Irastorza-ri, Philippe Bacardatz-ek Argitxu Hiriart-Urruty-ri.

Saint-Jean jaunak Bernadette Remeau And. izendatu du hautetsi berri gisa. Izan ere, Auzapez Anderearen heriotzaren ondotik, haren ordezkatzea komenigarria da. Hauteskunde Kodeko L.270 artikulua araber, “edozein arrazoiengatik haren lekua libre utzi duen hautetsia hauteskunde zerrendatik hautatua izan den azken hautetsiaren gibeletik datorren berehalako hautagaiak ordezkatu behar du.”.

1 – Saioko idazkariaren izendatzea (txostengilea Saint-Jean Jn.)

Aho batez, hor zirenek Argitxu Hirigoien saioko idazkari gisa izendatu dute

2 – Auzapezaren hautatzea (txostengilea Saint-Jean Jn.)

2019ko martxoaren 20ean gertatu zen Auzapez anderearen heriotzaren ondorioz eta Lurralde Kolektibitateetako Kode Orokorraren L.2122-14 artikulua araber, Herri Biltzarra haren ordezkatzea egiteko deitua izan da.

Bi hautagai aurkeztu dira Auzapez izateko:

- Christian Devèze Jn. “Unis pour Cambo” zerrendaren izenean
- Argitxu Hiriart-Urruty And. “Nahi Dugun Herria” zerrendaren izenean.

Laguntzaile gisa izendatu dira: Carmen Gonzalez And. eta Nathalie Aïçaguerre And.

Bozka sekretua burutu da.

Bozkaren emaitza:

Boz emaile kopurua.....	29
Bozka baliogabeak.....	1
Bozka baliiodunak.....	28
Gehiengo osoa.....	15

Bozken banaketa:

Christian Devèze Jn.....	24 bozka
Argitxu Hiriart-Urruty And.....	4 bozka

Christian Devèze Jn Kanboko Auzapez izendatua izan da.

3 – Axuant kopuruaren finkatzea (txostengilea Auzapez Jn.)

Auzapez Jn.-k Lurralde Kolektibitateetako Kode Orokorraren L2122-1, L2122-10, L2122-2, eta L2122-7-2 artikulua irakurri ditu.

Auzapez Jn.-k axuant kopurua zazpitan finkatzea proposatu dio Herri Biltzarrari

Aho batez onartua.

4 – Axuante hautatzea (txostengilea Auzapez Jn.)

Auzapez Jn.-k Lurralde Kolektibitateetako Kode Orokorraren L2122-4 eta L2122-7-2 artikulua irakurri ditu.

Axuant funtzioa betetzeko hautagaien zerrenda:

“Unis pour Cambo” taldearen izenean: Eliane Noblia And., Frédéric Bardin Jn., Pascale Lespade And., Didier Irastorza Jn., Eliane Aizpuru And., Henri Saint Jean Jn., Anne-Marie Pontacq And.

“Nahi Dugun Herria” taldearen izenean: Argitxu Hiriart-Urruty And., Philippe Bacardatz Jn., Nathalie Aïçaguerre And., Amaia Beyrie And.

Bozka sekretua burutu da.

Bozkaren emaitza:

Boz emaile kopurua.....	29
Bozka baliogabeak.....	0
Bozka baliiodunak.....	29
Gehiengo osoa.....	15

Bozken banaketa:

Eliane Noblia And.-ak aurkezturiko “Unis pour Cambo” zerrendak.....25
bozka
Argitxu Hitiart-Urruty And...-k aurkezturiko “Nahi Dugun Herria”
zerrendak.....4 bozka

Noblia And.-k gidaturiko zerrendako hautagaiak axuant gisa izendatuak izan dira eta kargua berehala hartu dute.

1. **axuanta: Eliane Noblia And.**
2. **axuanta: Frédéric Bardin Jn.**
3. **axuanta: Pascale lespade And.**
4. **axuanta: Didier Irastorza Jn.**
5. **axuanta: Eliane Aizpuru And.**
6. **axuanta: Henri Saint-Jean Jn.**
7. **axuanta: Anne-Marie Pontacq And.**

Vincent Bru Jn. gelatik atera da.

5 – Auzapezaren, axuanten eta kontseilari ordezkarien ordainsariak (txostengilea Auzapez Jn.)

Lurralde Kolektibitateetako Kode Orokorraren L2123-20, L2123-22, L2123-23 eta L2123-24 artikuluen arabera, Herri Biltzarra Auzapezari, axuantei eta Kontseilari ordezkariari esleituko zaien ordainsariaren zenbatekoa bozkatzera deitua da.

Auzapezak, herria 3.500 eta 9.999 biztanle arteko estratu demokratikoaren baitakoa dela oroitarazi du; urteko gehiengo ordainsaria (2019ko urtarrilaren 1etik aitzina aplikatzekoak diren 2017 urtarrilaren 26ko 2017-85 eta 2017ko abenduaren 21eko 2017-1436 eta 2017-1737 dekretuen bidez finkatua) da:

25 670,04 € (gordin) Auzapezarentzat,
10 268,02 € (gordin) axuant bakoitzarentzat.

Herri Biltzarrari proposatu zaio:

- Lurralde Kolektibitateetako Kode orokorreko L.2123-22 eta R.2123-23 artikuluek aurreikusten duten bezala, turismo estazio sailkapenaren barne den herri den heinean, funtzio ordainsariak emendatzea.

- esleitzea:

- Auzapezari: Funtzio Publikoko indize eskalako muturreko indize gordinari dagokion lansariaren zenbatekoaren % 55eko funtzio ordainsaria.
- Axuantei: Funtzio Publikoko indize eskalako muturreko indize gordinaren %15eko funtzio ordainsaria.
- Ordezkari kargua eskuratu duten hautetsiei: Funtzio Publikoko indize eskalako

muturreko indize gordinaren %3,54eko funtzio ordainsaria.

Aho batez onartua

Argitxu HIRIART-URRUTY And.-k, Philippe BACARDATZ Jn.-k., Nathalie AÏCAGUERRE And.-k, Amala BEYRIE And.-k ez dute bozkatu.

6 – Ahalmenen esleitzea (txostengilea Auzapez Jn.)

Herri Biltzarra, Lurralde Kolektibitateetako Kode Orokorraren L2122-22 artikulua araberaz, azalpen ohar laburbilduan aurkeztuak diren Auzapezaren ahalmenei buruzko iritzia agertzera gonbidatua da Herri Biltzarra.

Aho batez onartua.

Aipagai zerrenda finituak izanik, saioa 20:10ean bururatu da.